

ŒUVRES DU CHANOINE ADÉMA

(Suite)

VI. - AUTRES POÉSIES PROFANES

CHURIKO

1

Mehetegiko chakurra,
Zangoz, errainez makhurra.
Berga bat luze muthurra,
Larrutik hurbil hezura,
Urthe guzia barura,
Zeren zen toki chuhurra.

2

Amak ttikitik utzia.
Esnerik gabe hazia,
Tripa errainei josia,
Uliek jaten hasia;
Churiok bere bizia
Hola derama guzia.

3

Mahainpetik kokoriko,
Begira dago Churiko
Artho achaltto bat noizko
Othe zaion eroriko.
Nausiak ematen daizko
Doan hortik bi ostiko.

4

Chakhur gaichoa holakoz
Merke hazten zutelakotz,
Tripa hutsik, ilhun gogoz,
Pleinuz zagon egun oroz:
Hatzka zangoz da besoz
Nihun ez zauken kukusoz.

5

Ohoinak ere noiz-nahi
Horren sainga ilhaunari
Gabaz ziren irriz ari:
«Chakhur prestua bi haiz. hi!»
Gero ichiltzea sari,
Jo harrika gaichoari.

6

Egun batez, baratzera
Huiatzen dute lanera,
Doan oilo haizatzera...
Chakhur gose-ta-mimbera,
Buztana tripaz behera,
Ihes doa gordetzera.

7

Martin etcheko muthila,
 Zalu harturik makhila,
 Haren ondotik dabilo.
 Churiko chakhur abila
 Lastoa ichil-ichila
 Dago alegia hila.

8

Zenbeit gau egun bakharrez
 Gorde egonik herabez,
 Ahera zen jan beharrez,
 Hamikatua, nigarrez,
 Estalia zaragarrez,
 Lakhastaz eta zakharrez.

9

Sukaldean nihor ez da;
 Sartzen da chakhur herresta
 Errekia zen prespresta,
 Zeren zen herriko besta.
 Usain, milik'eta jasta
 Dena jaten du has eta.

10

Etcheko andre khechua
 Hor heldu da hats-hantua:
 « Zakhur madarikatua,
 « Eia, hor, usu-usua,
 « Nik hauts artean burua,
 « Egik hire ordenua. »

11

Ordenuak hau du beltza,
 Denen uztea bertzentza;
 Churikok badaki ontsa
 Nori zer utz, nola phentsa:
 Etchekandareari gantz;
 Nausiari azken putza.

12

Bizian gosez egonik,
 Hilzean sobera janik,
 Huna Churikok erranik
 Zer entzun dugun azkenik:
 « Gose dagonaren ganik
 « Ez daitekela lau onik».

MARTIN ETA KATALIN

1

Nik bi senhar emazte
 baditut hauzoan,
 Egun oroz goizetik
 hasiak haroan:
 Martin maiz ostatura
 doakolakoan,
 Katalin gathilutik
 ari da chokoan.

2

Uste baino goizchago
Kattalini behin
Ostatutik etchera
heldu zaio Martin.
Gathilua utzirik
— horrek baitio min —
Hasten zaio mokoka
Martini Kattalin.

3

« Hor biza, hordi tzarra,
« hor hiz, alfer handi?
« Ah! zer etche jalea
« hartu hintudan, hi!
« Hirekin bizitzeak
« ase naik aspaldi.
« Hi, gizon baino hobe
« hindeken zahagi.»

4

« Hots! Kattalin maitea,
« ez bada hasarra:
« Zuk eta nik badugu
« elgarren beharra.
« Zu nere bihotzean
« zintuzket bakharra
« Zu baino eztichago
« ez baliz nafarra. »

5

— « Hik iretsi nafarrak
« ni ez naik eztitzen,
« Ez hire mozkor hatsak
« chutik atchikitzen».
— « Ene hatsak, Kattalin,
« ez hau, ez, izitzen;
« Garratchagorik dainat
« nik hiri sentitzen».

6

Kattalin hasten zaio
erkhatz ukhaldiak;
Gizona bihurtzen da
oro aurdikika:
Emaztea dakion
hantchet belhaunika,
Buruko iletarik
herrestan dabilka.

7

Hel! hel! hel! deiadarrez
Kattalin hasirik,
Banoakote lotsaz
izan dadin hilik;
Othoi, hots! egon diten
geldirik ichilik...
Biek naute kampora
igorri hezirik.

HITZUNTZIAK

1

Gure herri chumetan
Zenbat hitzuntzi,
Zinez edo jostelan
Oro erasi,
Trebes, nahasi!
Bella daude nor zertan
Hobendun kausi,
Nori pitx hauzi;
Deus ez nahiz bertzetan
Onik ikhusi.

2

Beren hutsak utzirik,
 Khechu bertzenez,
 Mihiak chorrotchirik
 Daude auhenez
 Heien hobenez;
 Nihor ez da garbirik,
 Hoien erranez,
 Kanpoz ez barnez.
 Zenbat, hoik ausikirik,
 Dagozin minez!

3

Izan dadin egia,
 Ala gezurra,
 Berdin hoien mihiak
 Doa itsura,
 Hauts edo urra;
 Denmendren iduria
 Edo itchura
 Dela segura.
 Hain da heien loria
 Bertzen madura!

4

Gabaz Akhelarretik
 Mainguka jinak,
 Hasten dire goizetik
 Gure sorginak,
 Debruz eginak,
 Sist handik, sast hemendik.
 Zer listafinak,
 Laphar, ausinak!
 Sendatzea luze dik
 Hek egin minak.

5

Mihiak du salatzen
 Bihotz barnea,
 Eta atherarazten
 Handik esnea
 Edo zornea.
 Mihi tzarra da denen
 Zikhintzailea
 Eta kaltea,
 Hauzo eta abaiden
 Makhurtzailea.

6

Erran chaharretarik
 Huna batena:
 Mihiak da gauzarrik
 Baliosena
 Edo tzarrena,
 Ongi edo kalterik
 Den gehiena
 Egin duena.
 Hark dabilka bethitik
 Mundu hau dena.

7

Girichtinoek bethi,
 Jainko legean.
 Behar ginuke bizi
 Batasunean,
 Orok bakean.
 Hitzuntzi tchar bat gaizki
 Mintzo denean
 Bertzen gainean.
 Nor-nahik diro kausi
 Bera hutsean.

MENDE JENDE MENDRE

1

Lehengo demboretan
ez zela deus onik,
Maiz aditzen dena da
gazte hoien ganik.
Chaharra naizelakotz
erran gogo dut, nik,
Oraikoez badenez
errenkuradunik.

2

Diote berthutea,
fedea, odola,
Oraiko jendeari
guttitu zaizkola.
Hobe ornen da orai
chikana, eskola,
Bakhotcha bere eta
bertzez ez achola.

3

Haurretik mainaz galdu,
gero gazte choro,
Gure seme alaben
haizu dire oro.
Burhaso'ta nausien
indarrak akhabo.
Beraz bazter chuchenik
gerokotz badago.

4

Zenbat alfer, edale,
aise bizi nahi!
Eta zenbat emanak
gurikeriari!
Zenbat hortakotz aiher
Jaioko legeari!
Aise jendetasuna
da ttikitzen ari,

5

Leheneko mendetan
hau zen, hau, zuzena:
Denek ohoratza
berthute zuena.
Orai zer-nahi bidez
gora heltzen dena,
Hainitzen agurretan
omen da lehana.

6

Zuzen'eta makhurra,
elgarri guduau,
Aspaldi etsai handi
Zabiltzan munduan
Jendea zuzenaren
alde zen orduan.
Indar gaitza du orai
makhurrik eskuan.

7

Fedea lehendantik
mendratua baita,
Bihotzen hotz idorra
erraitea gaitz da.
Bere burua beizik
nihor ezin maita,
Izanagatik ere
ama edo aita.

8

Ongi-egile gutiz
orhoit da mundua;
Ahaidetan beretan
labur da dolua.
Hila hil; osoki da
etchetik khendua;
Bai eta hark utzia
harentzat galdua,

Huna orai zer laiten
 askoren nahia:
 Gezurrari ez dadin
 gerlau har egia.
 Zotzetik da ziria,
 hazitik bihia.
 Gezurra lege hada,
 haizu da gaizkia.

OHORE LABORANTZARI

1

Munduan oi! zein eder den
 Ohorezko bizia,
 Guziz laborariaren
 Lanak irabazia!
 Hark du orai, nola lehen
 Hazten mundu guzia.

2

Laborantza gauza handi
 Eta botheretsua!
 Hartan da lanean ari
 Jainkoaren eskua,
 Gizonaren eskuari
 Berma dadin lotua.

3

Ez balitz laboraririk
 Hits lagozke bazterrak;
 Ez liro gauza handirik
 Eman alhor alferrak.
 Hiritarra, hik segurik
 Zer jan hezaken, errak.

4

Bizitzeko behar diren
 Gauza lehen lehenak,
 Bihi, fruitu, zer-nahi den,
 Oilo, abre gizenak,
 Jendeak laborarien
 Eskutik ditu denak.

5

Orhoit gaiten arno hori,
 Aihenaren odola,
 Edaterat nork orori
 Ematen duen hola.
 Jakin gabe ez da sori
 Edatea nihola.

6

Laborari etcheta den
 Hauk haur eder lerroa!
 Zangar lodi, gorputz lerden,
 Larru garbi sanoa;
 dita ama leialen
 Ondorio gozoa.

7

Laboraria lanean
 Egunaz da nekhatzen;
 Bainan gero arratsean
 Familiaz gozatzen.
 Gabaz aise da ohean
 Goizeraino lokhaitzen.

8

Igandez, Eskualherrian,
 Eder laboraria!
 Elizan, kantaz lorian;
 Plazan, pilotaria;
 Chahartu'ta, jar-harrian
 Juje'do chacharia.

Laborantzari ihesi
 Hambat seme alaba,
 Ai! ondikotz, baitoazi
 Toki arrotzetara;
 Alhorrak larre'ta sasi
 Hara han daiten bara.

AMERIKETARAKO BIDEAN

1

Huna jadanik hamar egun
 Itsasoz itsaso noala,
 Nere sor etchetik hain urrun
 Utzirik amaren hegala.

2

Ai! ene amaren nigarrak
 Orai ez daude chukaturik,
 Aita zenaz seme bakharrak
 Baitzadukan konsolaturik.

3

Arreba, hor egon zaite, zu,
 Ama maitearen aldean;
 Jinen natzaiola errozu
 Bai, urthe laburrik barnean

4

Iñharak horra airez aire
 Nun doazin alde hartara;
 Hegalak banitu, ni ere
 Ez nинdeke, ez, hemen bara

5

Ametsetarik nintzen barda
 aberats etcherat itzuli;
 Bainan ene ametsa-juan da;
 Hartan oro zaizkit itzali.

6

Lore bat, hauzo baratzean
 Ikhusi dut, eta han utzi;
 Berari deus ez diot erran;
 Igorriren diot goaraintzi.

7

Hor berean, lore gordea,
 Egon zakizkit, hitstu gabe:
 Zu izanen zare neurea,
 Zu, nik ditudan denen jabe.

8

Ene gazte lagun maiteak,
 Sor-herriaz goza zaitezte.
 Ni hortik hoin urrun juaiteak
 Oi! zein nauen ezarri triste!

9

Hik, bai, diru gose zorrotza,
 Nabilkak hola zoraturik;
 Hik dautak gogortu bihotza,
 Hik ezarri nauk itsuturik.

10

Aberastu nahi naiz, bainan
 Zuzenez eta ohorezki:
 Herrirat heltzen naizenean,
 Dirudun fama ez zait aski.

ŒUVRES

DU CHANOINE ADÉMA

(Suite)

VI. - AUTRES POÉSIES PROFANES

(Suite)

PATTIN DIRUDUN EZ FEDEDUN

1

Ez du urthe hambatik
sor herritik joanik,
Pattin ethorri zaiku
aberats jadanik,
Agur eta ohore
nahiz denen ganik.
Nor da orai herrian
Pattin bezein jaunik?

2

Pattin aberasteak
holo badu jaundu,
Nola gerthatzen zaio
ez baita gizondu?
Giristino legea
utzirik omen du; . . .
Bihotza nekhez dio
diru hutsak ondu.

3

Pattinen balentria,
herrirat jin eta,
Gur' Erlisioneaz
maiz trufatzen baita.
— « Jainko legea, Pattin,
« ez dirozu maita;
« Huni ihes baitzare
« ibili sosketa.»

4

Eskola guttirekin
joan bezala jinik,
Bera beizik ez zaio
nihor jakintsunik:
— « Aphez hoiek bezenbat,
« dio, badakit nik;
« Ez zazuela sinhets
« hoikien erranik.»

5

Pattini gero moltsa
diote ebatsi.
Hire ohoinak, Pattin,
milaka goaraintzi.
Haren egitaea
ez dakikek gaitzi :
Hortan segurik ez dik
aphezik sinhetsi.

6

Bere sosak galdurik
denean gelditu,
Lausengariak zaizko
Pattini guttatu.
Jakitatez ere bai
bera da ttikitu;
Lehengo balentriak
ichilduak ditu.

7

Urrundik jin hoieri
gauden beha orai,
Gu bezala fededun
diren, ez edo bai;
Eia gure agurren
hartzeko diren gai,
Zer othe dituzkegun,
anai ala etsai.

BETIRISANTS

1

Betirisantsez aspaldi dik
Ez zela deus berri handirik;
Zioten ehortzi zutela bizirik.
Lurpetik ilkirik,
Ez duk ez hirririk,
Munduz mundu herratua ibilirik,
Oraikotik ditik Betirik
Indarrak hartu, guk utzirik;
Hor ziagok kargu handitan jarririk.
Hor ziagok kargu handitan jarririk.

2

Betirisants bai lehen ere
Zer den aski jakinak gare:
Zer-nahi jukutria, eta halere
Orai arte pobre;
Orai du podore:
Zorri hilik piztuen emperadore;
Gaichto eta tzarren fagore,
Hoien ganik baitu ohore.
Jende zuzenak orai behar du gorde.
Jende zuzenak orai behar du gorde.

3

Betirisants lehen ardura
 Balinbazabilan barura
 Orai hargatik legunik dik ilchu-
 [ra]
 Amarru segura
 Jin zaiok burua
 Hain aphaletik igaiteko tronura,
 Lausengatuz jende makur
 [ra,]
 Egiaztat salduz gezurra.
 Holache dik mundua bildu eskura.
 Holache dik mundua bildu eskura.

4

Betirisants dugu lehana
 Lege hau ekharri duena:
 Indarraren meneko dela zuzena.
 Nor baita tcharrena,
 Hark dik hark hobena;
 Gaichtagin azkar den bat nola kon-
 [dena!]
 Orai nor-nahik dakiena,
 Ofiziotan den hitsena
 Bide da kontzientziadunarena.
 Bide da kontzientziadunarena.

5

Betirisantsen politika,
 Bera lacho, bertzeak tinka;
 Gero «Bibe la liberte» errepika.
 Jendea dabilka
 Tiraka, purtzika,
 Legar eta lege berri ukhaldika.
 Nausi nahiz oro gaindizka,
 Bainan oro ezin aldizka.
 Diote hori dela Errepublika.
 Diote hori dela Errepublika.

6

Betirisanstarren Jainkoia
 Da mundu huntako gozoa,
 Erlisione libro eta lazoa,
 Aphez gabekoa,
 Erran gabe doa,
 Gure chakurrarena bezalakoa,
 Gerokotzat bego geroa;
 Bainan damurik herioa
 Hoieri ere zaiote jin gogon.
 Hoieri ere zaiote jin gogoa.

7

Betirisantsen soldaduak,
 Framazon Beltzak deituak,
 Non-nahi zaizkigu nausi phara-
 [tuak.]
 Zer nahasmendua,
 Kalteak, gastuak,
 Derakharzken hoien gobernamen-
 [duak!]
 Jainkorik ez nahiz, mun-
 [duak]
 Jabe hoiek ditik hartuak.
 Ez dik gaizki irri egiten debruak.
 Ez dik gaizki irri egiten debruak.

8

Betirisantsen zangopeta
 Oi! zenbat, dabilan herrestan,
 Eta zenbat den haren aztaparretan!
 Bai aberatsetan,
 Bai nekhatzaletan,
 Zenbat libro uste ta diren gathe-
 [tan!]
 Bizitze gisa batzuetan,
 Jainko legez trabatuetan.
 Errechki daude Betiriren legetan.
 Errechki daude Betiriren legetan.

9

Betirisantsi bertze asko
 Begiak itsurik darraizko;
 Hek ere gisa baitire harendako,
 Zeren diren gaichto,
 Choro edo asto.
 Arren zenbat den bazterretan ho-
 [lako!]]
 Jaun chanfarin, chilodun
 [kasko,]
 Edale, mandril, esku mako,
 bien bozak Betirik ditu beharko.
 Hoien bozak Betirik ditu beharko.

10

Betirisanstarren haurreri
 Eskola zar zaie deneri,
 Bainan eskolan Jainkorik ez zi-
 [legi.]
 Gero da ageri,
 Behatuz hoieri,
 Han ikhasietan direla trebegi.
 Berthuteaz nihor ez bedi
 Hoier mintzatzerat atre-
 [bi:]
 Ez galde jendetasunik abreeri.
 Ez galde jendetasunik abreeri.

ERREPUBLIKA

1

Erreg Emperadore et' Errepublika:
 Chuchen, makhur, nahaste, zenbat itzulika!
 Ai, ai, ai! mulilla, zenbat itzulika!

2

Gobernamenduetan zoin da zuzenena?
 Ethorkiz, legez eta obraz hala dena.
 Ai, ai, ai! mulilla, obraz hala dena.

3

Errepublika onik othe daite nihun?
 Baietz, diote; bainan nekhev eta urrun.
 Ai, ai, ai! mulilla, nekhev eta urrun.

4

Frantzes Errepublika zer den orai guziz,
 Kanta zezakeiagu, berak erakutsiz.
 Ai, ai, ai! mutilla, berak erakutsiz.

5

Liberté, égalité eta Fraternité:
 Ah! hiru gezur hoiek egiak balite!
 Ai, ai, ai! mutilla, egiak balite!

6

Lehengo demboretan errege batto zen.
 Orai denak errege : hori duk hoi zuzen!
 Ai, ai, ai! mutilla, hori duk hoi zuzen!

7

Ni ere errege naiz, bainan ez aisia;
 Bertzeak gainian eta ni bethi azpian.
 Ai, ai, ai! mutilla, ni bethi azpian.

8

Guziak kargu gose, eta nausi nahi;
 Hau duk, Errepublika : hi khen eta jar ni.
 Ai, ai, ai! mutilla, hi khen eta jar ni.

9

Karguak ziren lehen goratik jin gauzak;
 Ematen ditik orai ziri baten bozak.
 Ai, ai, ai! mutilla, ziri baten bozak.

10

Podoreduna lehen handi behar zuan;
 Orai ttiki ta tcharrak nausi tuk multzuan.
 Ai, ai, ai! mutilla, nausi tuk multzuan.

11

Hainbertze bizi nahiz gure zergen gostuz.
 Oro bethe zaizkiguk karguz et' empleguz.
 Ai, ai, ai! mutilla, karguz et' empleguz.

12

Oro soldado eta jende eskolatu....
 Nork beharko dik gero haintzurrari lotu?
 Ai, ai, ai! mutilla, haintzurrari lotu.

13

Ez gaituk nihioiz izan hoin tinko estekan,
 Ez eta biphilduak hoin murritz errekan.
 Ai, ai, ai! mutilla, hoin murritz errekan.

14

Lehengo gobernez errenkura hintzen;
 Orai, mutilla, orai, ikhasak bizitzen.
 Ai, ai, ai! mutilla, ikhasak bizitzen.

15

Alferomes, Kochkarin, Krakesku, Triparno,
 Hauk beren jitez dire errepublikano.
 Ai, ai, ai! mutilla, errepublikano.

16

Errepublikanoa, arim eta gurphutz,
 Lehen lehenetarik da Kadet Astoputz.
 Ai, ai, ai! mutilla, da Kadet Astoputz.

17

Kadet Astoputz lehen mezara zabilan;
 Orai aphezei gerlan omen du aski lan.
 Ai, ai, ai ! mutilla, amen du aski lan.

18

Lanbide hitskoari, Kadet, lotu haiz to;
 Ez hinte hola ibil, ez bahintz hoin asto.
 Ai, ai, ai! mutilla, ez bahintz hoin asto.

19

Kadet Astoputz horrek, asko herriean,
 Halere badaduzka denak ikharetan.
 Ai, ai, ai! mutilla, denak ikharetan,

20

Framazon, arnegatu, zirtzil eta judu,
 Guzien buruzagi horiek ditugu.
 Ai, ai, ai! mutilla, horiek ditugu.

21

Jainko legerik gabe, leg' egile berak...
 Holakoz ziren lehen bethetzen galerak.
 Ai, ai, ai! mutilla, bethetzen galerak.

22

Ohoinak ere berdin, biderat atheraz,
 Lege egile dituk, indar nausi beraz.
 Ai, ai, ai! mutilla, indar nausi beraz.

23

Jainkorikan ez baliz, ez duk ez gizonik
 Gizonari zuzenez deus mana lironik.
 Ai, ai, ai! mutilla, deus mana lironik.

24

Errepublika dela gobernu zuhurra.
 Guzien ontasuna; oi! hori gezurra!
 Ai, ai, ai! mutilla, oi! hori gezurra!

25

Zer-nahi haizu nahiz, berentzat lehenik,
 Erlisioneari dire aiherrenik.
 Ai, ai, ai! mutilla, dire aiherrenik.

26

Eskolan eman ditek Jainkoa debeku;
 Oraiche gure haurrek behaitek abreto.
 Ai, ai, ai! mutilla, behaitek abreto.

27

Holakoen eskolak sinhets baginetza,
 Legerik ez nausirik ez lukek guretza.
 Ai, ai, ai! mutilla, ez lukek guretza.

28

Arrotzak ditiagu gure umen jabe;
 Gero izanen gaituk gurerik deus gabe.
 Ai, ai, ai! mutilla, gurerik deus gabe.

29

Nihork bererik deus ez, Gobernuak oro:
 Horra zer lege laster duten eman gogo.
 Ai, ai, ai! mutilla, duten eman gogo.

30

Nun dire Eskualdunen lehengo Fueroak?
 Arbasoen parrean gu zer gathiboak!
 Ai, ai, ai! mutilla, gu zer gathiboak!

31

Cure zuzenak oro, alegia deus ez,
 Moztu darozkigute ichilka, gezurrez.
 Ai, ai, ai! mutilla, ichilka gezurrez.

32

Indarra omen dela orai denen nausi;
 Lege zahar, guziak horrek ditik hautsi.
 Ai, ai, ai! mulilla, horrek ditik hautsi.

33

Indarra eta bortcha, oi! zer gauza hotzak!
 Horiez ez daitezke bil gure bihotzak.
 Ai, ai, ai! mulilla, bil gure bihotzak.

34

Ez duk gizon ez jende hola laket dena;
 Guziz Eskualdun zainik ez dik den mendrena.
 Ai, ai, ai! mutilla, ez dik den mendrena.

35

Gure eskuara bera galduz bagoazik.
 Ai! nihoiz ez baginik ikhusi arrotzik!
 Ai, ai, ai! mulilla, ikhusi arrotzik!



ŒUVRES

DU CHANOINE ADÉMA

(Suite et Fin)

VII. - CHANTS PATRIOTIQUES

GAUDEN GU ESKUALDUN

(ESKUALDUN BESTA ETA BILTZARRETAKO KANTA)

Errepika

Zazpi Eskualherriek
bat egin dezagun
Guziak bethi, bethi,
gauden gu Eskualdun.

1

Agur eta ohore
Eskualherriari:
Lapurdi, Basa-Nabar,
Zibero gainari;
Bizkai, Nabar, Gipuzko,
eta Alabari.
Zazpiak bat besarka
lot beitetz elgarri.

2

Haritz eder bat bada
gure mendietan,
Zazpi adarrez dena
zabaltzen airetan,
Frantzian, Spainian,
bi alderdieten:
Hemen hiru'ta han lau,
bat da zazpietan.

3

Ekhalde-Iberrian
noiz othe sortua?
Lau mila urthe huntan
Irurat aldautua;
Hain handi eta azkar
lehen izatua,
Orai gure haritza
zein den murriztua!

4

Funditura uholdez,
zirimolez, ortziz;
Aizkorari arrotzek
adargoiak hautsiz;
Harrek ere ichilka
barnetik iretsiz;...
Haritz maitea, min duk
aphaltzea gaitziz.

5

Gure haritz hau, azken
mende hautaraino,
Zaharturik ere zen
eder bezein sano.
Bere lur hoin garbian
oso zagoeno,
Gainetik zoakona
behar zen arrano.

6

Hi haiz, Eskualherria,
haritz hori bera,
Arrotza nausitrik
moztua sobera.
Oi! gure arbasoak,
ez, othoi, ez beira
Zein goratik garen gu
jautsiak behera.

7

Eskualduna jendetan,
Eskuara mintzotan,
Lehen-lehenak dire,
jakinen ahotan.
Nahiz orai arrotzak
azpian hadukan,
Eskualduna, egoadi
Eskualdun herrunkan.

8

Gu gare, Eskualdunak,
berechiak beraz
Gure ethorkiz eta
mintzairaz eskuaraz.
Nihongo arrotzekin
ez dadien nahas,
Arrotzek gur'eskura
ez dirote ikhas.

9

Gureak ziren lehen
baztertak guziak,
Arbasoek utziak,
hek irabaziak.
Guri esker Frantziak
eta Espaniak
Daduzkate dituzten
Eremu handiak.

10

Mairu beltza zelarik
Espanian nausi,
Nabasen Eskualdunak
egin zion jauzi.
Hark ekharri gatheak
han gintuen hautsi,
Eta hilez bertzeak
igorri ihesi.

11

Orduan gure alde
oihuz zauden oro:
« Bere lurretan nausi
« Eskualduna bego.
« Frantziak, Espaniak,
« bai orai bai gero,
« Deus khendu gabe dute
« gerizatu gogo ».

12

Agintz' hoitaz geroztik
gan dire demborak.
Ukhatu diozkate
hartzedunei zorrak.
Oi! indar makurraren
lege latz gogorrak!
Galduet zuzendunen
alfer heiagorak.

13

Ez bahaiz, Eskualduna,
lehen bezein handi,
Aphaldu gabe chutik
bederen egoadi,
Odoiez eta fedez
bethi berdin garbi,
Bethi tink' atchikia
hire Eskuarari,

14

Gureez gure lehen
hain libro ginenak,
Ezin ahantziz gaude
orduko zuzenak.
Zer ametsak ditugun,
zer orhoitzapenak!
Jaungoikoak bakharrik
badakizka denak.

15

Zuri gaude othoitzez,
Jaungoiko maitea,
Lagun zazu zerutik
Eskualdun jendea,
Begira dezan bethi
lehengo fedea,
Zor zaizkon zuzenekin
ardiets balea.

1

Eskualdunak nor eta zer garen
Ez dugu behar ahantzi:
Ekhialdeko jendaia zaharren
Ginela lehen azkazi.
Iberrin ginen hasi
Bizitzen berech gure nausi;
Iberritar berberak hemen
Eskualdun ginen berezi.
Gure Eskualherri hautan lehen
Gure legez ginan bizi;
Sekulan arrotzik ez ginuen
Gure nausitzat onetsi.

2

Aberats bai hastetik aberez
Ibar eta mendietan,
Gero burdin, zilhar eta urhez
Lur barnetako mietan;
Eskualduna denetan
Antzedunena zen jendetan.
Gero abiatu zen urez
Bidaiatzen untzietan;
Pheniziatik ingurunez
Sartzen zen lur urrunetan.
Ezagun dire deituraz
Haren hatzak guzietan.

3

Hannibalen bai eta Pomperen,
 Gerla-gizonen erdiak
 Eskualdun zalhu zailak ziren
 Hoberentzat berechiak.
 Nekhe, laster, jauziak,
 Haurretik hala ikhasiak;
 Beren bazter librotan deusen
 Beldurrik gabe haziak;
 Irrintzinaz gudura oldartzen,
 Gero han ezin heziak.
 Hek amorrik eman baino lehen,
 Hilzera zauden guziak.

4

Goizik ginen gu girichtinotu,
 Ja Jainkobatar ginenak;
 Santiagok baigintuen argitu
 Gu orotarik lehenak.
 Ama Jainkoarenak,
 Saragozen agertu zenak,
 Bere Pilharra utzi dauku,
 Hari berma gaiten denak.
 Gure fedea ez du higitu
 Geroztik etsai gaitzenak;
 Eskualdunak bethi etsai ditu
 Kristoren etsai direnak.

5

Basa jendez zelaiak gaindirik
 Jen ginen mendietara;
 Gero berritz Mairuak ethorririk,
 Nihork ez zetzazken bara.
 Heier buruz gerlara
 Noiz-nahi jausten ginen hara;
 Bortz mendez hola jazarrik,
 Jo ginuen Nabasera;
 Berehun mila Mairu han hilik
 Itzuli ginen etchera.
 Librorik, gatheak guk hautsirik,
 Espainia zen athera.

6

Eskualduna, zerbeit hintzen ari,
 Hire mendi hauk beiratuz,
 Frantziari eta Espainiari
 Mairuen traban pharatuz,
 Biak hala salbatuz!
 Hire saria zak irakus:
 Libroenik utzi beharra hi,
 Bizi haiz bertzek manatuz;
 Hirekilako patuak hautsi
 Dauzkitek hitaz trufatuz;
 Estekan tinko haute ezarri
 Hire furoak khenduz.

7

Mundu guziko mintzaietarik
 Zaharrena, ederrena,
 Entzuten dugu jakintsunetarik
 Dela Eskualdunarena.
 Nor othe zen lehena
 Eskuara asmatu zuena?
 Lehenbiziko jendetarik
 Du Eskuarak hastapena,
 Eskualdunek dugu hau bakharrak
 Gure mintzaia zuzena,
 Eta oraino dugu hortarik
 Ohorerik handiena.

8

Lapurdi, Nabarpe'ta Zibero,
 Eskualherriak Frantzian;
 Bizkai, Gipuzko, Alaba, Nabarro,
 Berdin dire Spainian.
 Zazpiak bat nahian
 Bagaude aspaldi handian.
 Zazpiek bat dute izan gogo
 Elgarren oneretsian.
 Oi! zein litekeien ederrago
 Baldin, Eskualdun herrian,
 Eskualduna bere gain balago
 Bere zuzenen erdian.

9

Lauretch, Bizintcho, Loiola,
 [Tchaberi,
 Lauak Saindu Eskualdunak.
 Harizpe, Ager, Zumalakarregi,
 Gure gerlari gaintunak.
 Astarloren lagunak,
 Atchular, Oihenart, hitz dunak;
 Lizarrag' eta Larramendi,
 Irakasle hain entzunak;
 Bonaparte, Dibasin, Abadi,
 Intchauspe, lau jakintsunak:
 Horiek dire Eskuaran aspaldi
 Argitzaile ditugunak.

10

Eskualdunak bereziki orai
 Fedeak gaduzka chutik.
 Jainkoaren beldurra dugu bai,
 Gizonenik ez hambatik.
 Jainkoa da goratik
 Gure nausi egundainotik;
 Guri manatzeko ez da gai
 Jainko gabeko puchantik,
 Ez sinheste, ez odol, ez mintzai
 Ez dutenak deus guretik.
 Aichkide ditugun ala etsai
 Ahal dakigu engoitik.

N.-B. — La *Revue* a publié les œuvres littéraires de M. Adéma, en 1908, pp, 83, 203, 284, 410, 602 et 757; et en 1909, pp. 103, 226 et 396. L'appréciation de ces poésies avec la biographie du bon chanoine a paru dans la *Revue*, en 1908, p. 121.

N. D. L. R.

